

II. eranskina:
ERABAKIA, 2021eko MAIATZAREN 21ekoa

SGIKerreko goi mailako teknikaria (Kalkuku Zientifikoa), 1. taldea.

Kategoria profesionala: SGIkerreko goi mailako teknikaria.

Espezialitatea: Kalkulu Zientifikoa.

PROZESUAN PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

I. eranskinaren b) atala, 2.1 puntua

Doktoregoa eta, baita ere, gradu edo lizentziatura hauetakoren bat: zientziak, osasun zientziak edo ingenieritza.

MEREZIMENDU LEHIAKETA

I. eranskinaren A) atala, 6.2.2 puntua

Poltsan sartzeko eskatzen direnez bestelako titulazio akademiko ofizialak baloratuko dira, baremo honen arabera:

- Doktoregoa: 6 puntu, Kalkulu zientifikoko espezialitatearekin loturarik badu; 2 puntu, loturarik ez badu.
- Gradua, lizentziatura, goi mailako ingeniariitza edo goi mailako arkitektura: 4 puntu, Kalkulu zientifikoko espezialitatearekin loturarik badu; 2 puntu, loturarik ez badu.
- Unibertsitate, ikastegi eta Tituluen Erregistroan (RUCT) erregistratutako unibertsitate master ofiziala: 3 puntu Kalkulu zientifikoko espezialitatearekin loturarik badu; 1 puntu, loturarik ez badu.
- Unibertsitate bateko graduondoko berezko titulua, gutxienez 450 ordukoa edo gutxienezko iraupen hori bermatzen duen kreditu kopuru duena. 2 puntu bakoitzeko, Kalkulu zientifikoko espezialitatearekin loturarik badu; 1 puntu, loturarik ez badu.